

egunekoa

Roldan Jimeno Aranguren

(Historialaria)

Magna civitas Pompaelonensium

Egun hauetan Iruñeko Gazteluko plazaren lur azpian aurkituriko erromatar hondakinak *Pompaelo*-ren historiaren gaineko interpretazioa goitik behera aldatzen ari dira. Gure Antzinakoa eta Goi Erdi Aroko ezagutzaren iraultza den indusketa hau behar ez den moduan eramaten ari da. Nafartarrok Agustín Azkarate Gasteizko katedralean zuzentzen ari den garai bereko indusketari inbidiaz begiratzen diogu. Hangoa askoz txikiagoa izanik zortzi urteko plana dauka. Hemengo arkeologi paradisu bat izanik, hilabete gutxi batzuetako indusketa batek burutuko du. Kultur eta ondarearekiko atxikimendu ezaren kontua da. Parisko Notre Dame-ko aurreko plazan antzeko istorioa izan zuten: aparkalekua egin nahi eta erromatar eta Antzin eta Goi Erdi Aroko ondare ikusgarriak agertu ondoren, lurpeko museo bat burutu zuten. Hemengo kultur arduradunak, noski, bestelako fase atzeratuago batean bizitzen dira, eta laster Iruñeko bihotzean aparkaleku dotorea izango dugu.

Pompaeloren sorrera. Egungo euskal hiriburuetatik, gehien erromanizatutako hiria Iruñea izan zen. Bere garrantzia ekonomian, lurralde organizazioan, administrazioan eta hedaduran ikusten da, Gazteluko plazen aurkikuntzek gainera handiagoa zela agerraraziz. Baskoien hiri nagusia Arga ibaiaren gainean dagoen mendixkan estrategiko batean kokatu zen, Iruñerriko bailarak, mendiak eta bideen sarrerak menperatzen zituztelarik. Erromatarren aurreko bizigunetik, hondakin arkeologiko gutxi ailegatu zaizkigu, eta ez dirudi Gazteluko plazako indusketek berrikeria aterako dutenik, kokagunea katedralaren inguruan baitzegoen. Hala ere, eramaten ari diren arkeologi teknikekin

informazio hau galtzea erraza litzateke. Garai horretan Iruñerri osoa antolatzen zuen baskoien *oppidum* bat izango zen. Edozein modutan, K.a. 75. eta 74. urteetako neguan, Sertorioren kontrako gudan, Pompeio erromatar jeneralaren miliziak neguko kanpamendua gune estrategiko honetan kokatu zuen. Horregatik, geroago, Pompeio *Pompaelo*-ren fundatzailetzat hartua izanen da. Baina izenaren etimologia nahiko zalantzarria da. Bere kokagunea dela eta, eskualde galier hispanikoen arteko komunikazio sarearen puntu garrantzitsua bihurtzen zen. Kantaurrei kostaldearekin ere lotura mantendu zuen, *Oiasso* edo Iruneruntz zeraman bideari esker. Beste bide pare bat Ebro ibaiarekin lotzen zuten, Caesaraugusta eta Varea-ramamaten zutenak.

Hiriaren bilakaera. Nahiz eta Plinio Zaharrak, I. mendean, Iruñea mugape txikiaren artean sartu, Pompaelo ordurako gaurko Nafarroa ia guztiaren erdigunea zen, Erromari zerga bat ordaindu behar ziolarik. II. mendearen hasieran Vespasianoren ediktu baten bidez, *ius latii* ematearen ondorioa seguraski, Iruñeak *municipium* maila lortu zuen, ordainketaz aske geratuz. Horrela estatuari federatua gelditu zen, bere auzokideak erromatar bizilagunak izateko eskubidea zutelarik. 275. urtean germaniar herrien lehenengo inbasioek hiria suntsitu zuten. Sutearen ondorioak Iruñeko alde zaharrean egin diren zenbait indusketatan ikusten dira —Gazteluko plazakoa barne—. Horrek galera iragankorra ekarri zion hiriari, biztanleriaren kopururik handiena *villae*-etara joanez. Hartara, Antoninok Iruñea Astorga eta Bordeleko biderearen *mansio* soil bat bezala aipatu zuen. Behe Antzinakoaren segurtasun ezaren ondorioz hiriaren inguru

ak gotortua izan zen, agian Gazteluko plazan agertu den harresi misterioso hori honekin erlazionatu behar dugularik. V. mendearen hasieran erasotzaile berri batzuk hiria berriro ere birrindu zuten.

Pompaelo eta Gazteluko plazako az-tarnak. Pompaeloko erromatar hirigintza denboran zehar aldatzen joan zen, baina oraindik mantentzen den oinarri bati eutsi zion. Hemen militar kanpamenduetan jatorria duen erromatar kardusa eta dekumanusa ezarri zen, iparraldetik hegoaldera eta mendebaldetik ekialdera hurrenez hurren ardatzak botaz, hauen inguruan kale guztiak antolatzen zirelarik. Hiriaren garairik bikainena I. mendearen azken laurdenaren eta II. mendearen bukaeraren tartean kokatu behar dugu. Etxe handi eta dotoreak ez ezik, aberastasuna isladatzen duten eraikuntza publikoak ere garai honetakoak dira, Gazteluko plazan agertu diren termak barne. Garai horretako aberastasunaz ere han eta hemen agerturiko mosaiko, zeramika eta txanponak berri ematen dizkigute. Momentu honetan Pompaelok inoiz lortuko zuen zabalerarik handiena zeukan. Ordutik Iruñeak suntsipen eta hirigintza prozesu etengabe eta interesgarri bat ezagutu du, mende luzeak pasa ondoren Gazteluko plaza gelditu arte. Baskoien hiriburuaren historia ezagutzeko daukagun oruberik interesgarriena politikoen presek hankaz gora jarri dute, beharko lukeen zientifismoari uko eginez. Arkeologiak estrato historikoen desgitea dakar, baina indusketa bat behar bezala burutuz, historiaren berreskurapena lortzen da. Hemen, ordea, Iruñeko Udaltzaingaren aparkalekuaren presekin gure Antzin eta Goi Erdi Aroko historia lilurgarri eta ezezagunaren hainbat pasarte betiko galduko zaizkigu.

zutabea

Juan Kruz Lakasta

Baso erdia

Larunbat gaua. Taberna bat. Bi lagun. Bi baso erdi. Mintzagai bat. Betiko mintzagaia. Batak dio guztia argi ikusten duela. Besteak guztia beltz dakusala. Batak Batasunaren bake proposamena itzela dela. Besteak ezer berririk ez dioela. Batak proiektu politikoa inposatzeari uko egitea badela zerbait. Besteak agerikoa dela Batasunak ez duela proiektu politikoa inposatzea helburu.

Batak dio burujabetza ez aipatzea eta irtenbidearen gakoa autodeterminazioa dela esatea asko dela. Besteak Batasuna yanka dantzan ari dela: aurrera, aurrera, atzera, atzera, ezker, eskuin, eta, azkenean, horren guztiaren ondotik, hasierako toki berean geratzen da. Bat une batez isilik geratzen da. Pentsakor dirudi. Batak besteak nola demontre zen yenkaren musika. Besteak «lariloli lariloli larilola» oroitarazten. Batak barre egiten du. Besteak ere bai.

Batak dio beharbada proposamena ez dela horren berritzailea. Besteak dio beharbada komenigarria dela proiektu politikoa ezartzeari uko egiten zaiola ofizialki adieraztea. Batak agian autodeterminazioarena betikoa esatea dela. Besteak agian autodeterminazioarena posiblistagoa dela.

Batak dio akaso ez duela guztia horren zuri ikusten. Besteak akaso ez duela guztia horren beltz ikusten. Batak beraz guztia gris ikusten dutela. Besteak ezetz, ez dute la guztia gris ikusten; izan ere, gauzak dau den bezala egonda, umore onez segitzen dute. Batak baso erdiari so: «Beraz, nola ikusten duzu basoa, erdi beteta ala erdi hutsik?». Besteak basoa hurrupada bakarrean edan ondoren: «Hutsik: goazen hurrengora». Batak, bere baso erdia zurrutada bakarrean edan aurretik, irribarre mehar batez: «Umore onagatik». Bada, hori, umore onagatik.

seiko urrea

Mattin Irigoien



Gatu horiek...

Euskal Herriari buruzko edozein frantsesezko aipamenetan, helburua exotismoa eta primitibotasuna saltzea izanik, beti harritu nau «Etxea»-ren inguruan egiten diguten mitologiak. Hain bereziak ote dira puntu hortan? Ala euskal izaerari egozten diotena baserri munduaren ezaugarrietarik bat baizik ez da. Artzaintzaren aroan ez zitezkeen «etxeari» edo lurrari hain atxikiak izan. Haatik, laborantza finkatzean, etxe, lur eremu eta familiak beste garrantzi bat hartzen dute. *Pétainismoaren* habia egin duten baloreetan finkatua da gure jendartea, hurbilean hiri izena merezi duenik ez izanagatik. Frantzia behere horietan ber gauza izan da jabetza

pribatu indibidualaren gainean finkatu laborantza guneetan. Salbu, hor, beti izan da hiri gotor bat, gune hartako historia bereganatu duena, zentralizatu, hirartu.

Azken mendeetan, lur honek ez du aski jateko furnitu bere altzoan sortu ume guzientzat. Tokiko hirira joan beharrean, Ameriketara edo Parisera eskapatu dira «etxe» primantza ez zutenak. Uzte sentimendua ezin garaiturik, batzu apez edo serora sartuko dira beren biziaren eskaintza sekta sosegari baten esku emanez. Nonbait «hautatu» izan behar hori. Etxearen ganik ezin bada, Jainkoaren ganik orduan (orain Aberriaren ganik bezala?). Ez baziren

hor sartzen ofizioaren segurtamenarengatik, beste batzu jandarma edo funtzionario joan diren bezala. Azken mendeen, «kaietak» (*les cadets*) hemen berean finkatzen dira. Hiria nagusituko ote? Ala primantzaren frustrazioa euskaldungoan kristalizatuko digute leher egin arte.

Behin, lagun batek gatu gris bat bazuen bere haurren jostakin. Egutero garajearen ematen zioten jatera. Baina egun batez beste gatu bat hurbildu zen. Beltz beltza, gazteagoa eta biziki maitagarria hain zuen gorputz borobila eta lausengu ezia. Haurren bozkarioa! Jatekoa emateko tenorean, grisak ez zuen garajearen nahi ukan. Sukalde ondoko arte-barnean gelditu zen, gatu bazka zakuari so. Ez zen gehiago handik kantitu jatekoa ukan arte. Beltz ttipiak uler zezan zein zen etxekoa... eta zein garajekoa agian!

Zinezko kabalak! Jendekinak izateaz gain, hein hortaraino jendekitik izatea ere!

kornerra

Mikel Elorza

Definizioak

Mundu zabalean integristak, fundamentalistak... kolore anitzetako jendakila dabil. Erligio edo nazionalismo eroak itsututa, iluntasunaren mirabe, xede gaiztoz (eta indarrez lortzekotan), askatasuna, demokrazia eta argiaren etsai dira. Aste honetan bi adibide izan ditugu. Batek, mundu librean halakoak eraistea ospatzen den garaian, Jerusalem harresi batez banatu nahi du. Eta arerioa ez hil izana damu duela adierazten du ozen. Munduko demokraten esku-liburuetatik «fundamentalista» eta «terrorista» definizioak bete-betean asmatzen ditu. Sharon deritzote eta Israelgo lehen ministroa da. Beste batek, oso alor diferentean, eskultura batzuk estali nahi ditu bera beti argazkitan azaltzen delako atzean harrizko emakumezko biluzia duela. «Integrista» eta «ilun» definizioak neurritan eginda dauzka. Ashcroft deritzote eta AEBetako fiskal nagusia da.

kornerra@egunkaria.com